

**PISUAK LEPOTIK LEPORA**  
**KONPONBIDERIK EZÁ: GIZONAREN TRAJEDIA**

Zergatik ez da gizona bere arazo nagusi eta benetakoei ir-  
tenbidea emateko gai? Zergatik askapen bat ematean beste ko-  
rapilo bat sortu? Bai Nazioartean eta bai bakoitzak bere etxean?

Ahalegin guztiak hor doaz: Pisuak lepo batetik, ez kanpora  
astintzen, besteen lepora baino, gero berriro geure lepora bi-  
hurtuko diren konturatu barik. Ez al daki gizonak arazoak bene-  
tan konpontzen?

Ikus dezagun problema bat kendu-itxura eginez, nola beste  
bat sortzen duan gizonak:

- Azken urtetako indar edo energi-krisi handia dela-ta: Bai  
ondo bideratu ere, nuklear indarra sortuz, indar ikaragarria eta  
garbia. Askapen ederra! Baina bat-batean beste arazo bat sortuz  
bildurrez eta arriskuz gaurko gizon-emakumeak bete, geroa edo  
etorkizuna iluntasun handiz ipotekatuz!

- Familiar andra-gizonen arazoak gainditu nahian: ezkontza  
apurtu, eta alkarren hasarreari konponketa bat eman! Baina eta  
seme-alabeengan bai problema berria!  
Leialtasuna apurtu, beste bateri emateko; batari maitasuna ema-  
teko, bestearenganakoa apurtu, etab.  
Arazo bat kendu eta beste bat sortu!

- Sabeleko epeltasunean dagoen «umetxoa» oztopo bezala badago, problema bihurtzen da. Problema hori kentzea erreza bai: abortatu eta kitto! Baina beste problema garratza ez al da sortzen? (Bizitzaren sustraia apurtuz konponbidea? Emetasunezko anima bizia izorratuz? Askoagan bizitzan zear ez al da biotz-sabel barrutik aldabada-deiak entzuten eta arazo bertiak sortzen, naiz eta momentuan ixilduz?

- Errekonberzioa dela-ta. Lanaren arazo izugarriaz zer egin? Lana zaintzeko irtenbidea: jende mordo bat kanpora edo langabeziara bota. Askorentzat irtenbide ona eta poza! Eta besteak? Langabeakoak?  
Arazo bat alboratu, beste bat sortuz!

- Terrorismoa dela-ta. Problema hau nola bideratu? Ba, beste indarkeri mota bat sortuz! Batzuk pozik. Eta besteak?

- Eta politikan? Alderdi edo partidu barruetako alkarren arteko eztabaidak, neu-zeu eztabaidak nola konpondu? Ba honela: apurtu, aldendu, eta kitto! Baina lehengoak baino arazo handiagoak eta garratzagoak sortuz? Familietan, herrietan, Euskal Herrian? Zenbat alderditan ez ote da gertatzen hau?  
Arazo bat kendu, beste handiago bat ipiniz!

- Zenbat bider mihiez eta gezurrez arazoak bideratzeko itzaropena sortu, eta gero egia ekintzetan ikusten denean beste problema handiak sortu! Etsipena, politikoen faltsutasuna, Euskal-Nazio-idealak bertan behera utsiz?

- Zenbat ahalegin izugarri diktadura batek dakartzan problemak kentzeko, eta diktadura hori izerdiz eta odolez kendu eta soluzionatu; eta gero beste diktadura bat sortuz, arazo handi berriei bide eman? Eta hau zenbat tokitan ez ote da gertatzen gaur bertan?

Eta honela jarrai genezake heziketa, euskararen arazoetan, giza edo emakumeen eskubideen problematika, etab.

Zergatik gertatzen da hori?

Bere barruan gaitz edo txarkeria edo injustizia daraman

konponbideak arazo berriak sortzen dituelako. Horregatik txar-keria sortzen duen irtenbidea ezin irtenbide ona edo definitiboa izan. Hau da bai pisuak lepotik ezin astinduz ibiltzea.

Zergatik?

Bakoitzak bere buruagan edo ta bere unean bakarrik pentsatzen dauelako? Edo prinsipio sakonik ezagatik? Benetako solidaritzarik (bai itzetan!) ezagatik? Gizonaren mugatasunagatik?

Norberaren pertsonalitate egite-bidean sortzen diren oztopoak gainditzeko gaitasun ezak, adore ta indar ezak, soluzio merkearekin nortasuna galtzera, usteltzera ez ote gaitu eramaten?

Benetako irtenbideak ez al du maitasuna, alkar-onartzea, indar beroa, solidaritza, txikienganako begirunea, mundu zabalaren etorkizuna ta bizitza... eskatzen?

Gaztedi berri bat, benetako irtenbideak lortzeko indarra ta adorea dituen gaztedi berri bat noiz agertuko zai?